

KOSTU EGITURA

Gure produktuaren kostuak honako hauek izango dira:

Lehenik eta behin, lana egiteko lokal bat beharko dugu. Bertan egingo dira produktuaren diseinuak eta administrazioari lotutako lanak. Gainera, behin enpresak produktuak eginda, erlojuen biltegia ere izango da, bertatik bidaliko ditugulako produktuak. Lokal hau alokatua izango da, eta hilabeteko 400€ inguruko kostua izango du guztira. Lokalaren gastua finkoa izango da baina argia, ura eta prezioa erabileraren arabera aldatzen den gauzena aldakorra. Hala ere, lokalari lotutako gastu guztiak zuzenak izango dira. Hauetaz gain, ez dugu beste kosturik izango lokalean, izan ere, beharrezko elektronikak eta altzariak ez ditugu erosi beharko.

Produktuaren garraioari dagokionez, erlojuak egiteko Euskal Herriko enpresa batekin hitz egingo dugunez, ez da oso garestia izango. Lehenengo hilabetean 50 erloju inguru bakarrik saltzea espero dugunez, produktuak biltegiara guk geuk emango ditugu. Horretarako, gure autoak erabiliko ditugu.

Bestalde, guk kontratatutako enpresari produktuaren produkzioa ordiandu egin beharko diogunez, erloju bakoitzaren %40a emango zaio. Hau da, gure produktua 40€tan salduko dugunez, enpresari erloju bakoitzeko 16€ emango zaizkio. Kostu hau finkoa izango da, produktu bakoitzeko enpresak jasoko duen dirua ez baita aldatuko. Era berean, zeharkakoa ere izango da, ez diegulako produktuak egingo dituen jendeari zuzenean ordainduko, enpresari baizik ondoren berak langileei banatzeko.

Erlojuen salmentari lotuz, ez dugu denda fisikorik edukiko, hasieran behintzat. Gure produktuak internetez salduko ditugu. Horretarako, gure webgunea sortu beharrean, Amazon webgunea erabiliko dugu. Nahiz eta gure webgunea sortzea baino garestiagoa izan, Amazonen gaur egungo erabilera ikusita, gure produktua ezagun bihurtzeko prozesua azkartuko duela iruditzen zaigu, honela erosle gehiago edukiz. Amazon webgunean gure produktuak saltzearen kostua 39€koa izango da, finkoa eta zuzena. Horretaz gain, saltzen dugun produktu bakoitzeko 1€ ordaindu beharko diogu Amazoni, kostu hau aldakorra eta zeharkakoa izango da. Behin erositakoan ordaindu beharreko kostua erosleak berak ordainduko du. Hau da, guk Correos konpainiaren bidez bidaliko ditugu eta garraioaren kostua erosleak ordainduko du, kostu gehigarri bat gehituz. Gastu hau zeharkakoa eta aldakorra izango da, garraioaren prezioa lekuaren arabera aldatu egiten baita.

Amaitzeko, soldatei dagokienez, nahiz eta unibertsitateko bi ikasle eduki produktuaren diseinuan lan egiteko, praktikak egiteko hartuko ditugunez, ez diegu soldata bat ordainduko. Enpresaren jabeen dagokigunez, 500€koa izango da bakoitzaren soldata lehenengo hilabetean. Gastu hau zuzena eta aldakorra da, izan ere, ondorengo hilabeteetan erlojuen salmentak gora egitea espero dugu, eta ondorioz, gure soldatak ere handitzea.

LEHENENGO HILABETEKO KOSTUAK:

Amazoneko salmenta	39€/hilabeteko + 1€/produktuko	x1 + x50	89€
Produkzioa	16€/erlojuko	x50	800€

Lokala	400€/hilabeteko	x1	400€
Soldatak	475€/pertonako	x4	2000€
GUZTIRA	3289€		